Karlisten Gerrateko kantak (III)

Joakin Olañeta "Ertzil" zenak bere aitonagandik ikasitakoak ditugu ondoreneko kanta hauek ere:

.....
dala mediante
Euskalerrian galdu da
makiña bat jente.
Gerratea eieban baiña,
ezin emon frnte,
.....be
oba derrepente.
Karlista orrek dirade
gizonak bastuak,
orren alde jaiki dira
euskaldun astuak.
Gerrara eruan mutillok, etxean gastuak etorrita omen daukaguz egunak estuak.

Behin eta berriz ere esan dezagun: "Mila urte igaro eta ura bere bidean".

Atzeak ez ote digu erakusten aurrea nola erabili? Batzutan hala dirudi. Gure artean zatiketa eta Madrilaldetik zapalketa; zela lehenean hala orainean. Zeren, ondoregoetan ere aurkitu genezake adierazpenik aski:

Madrillera juateko
ein biou garraztu;
ez jan da edan egin
eta bizarrak orraztu;
karga fusillok eta
ezpatak zorroztu;
biziak aurrera ta
ildakuak aztu.
Mozkorrak eta lapurrak
danak alkarrekin;
lelengo lapurretia
Karlos-en bonekin.
Madrillera sartzen
bono orren bueltia,
baña asko kostau biar dau
ara juatia.

Esan ohi denez: "azeri zaharrari ilea joan, baina aniza ez". Hainbeste aldiz kritikatu den karlisten joera bera nabari baita gure abertzale askotan, zentzurik gabeko bortxakeriz gauzak konpondu nahirik.

Joera hortako bertsoetatik Santa Kurutz apeza ere ezin zen libratu eta hara beretzat ere pare bat lauko:

Relijiuan zer dan
nai duenak jakin,
enteratu dadilla
Santa Kurutzekin.

Obra onak atzera,
erioizak egin,
ia noiz asetzen dan
iñon odolakin.

Bigarrenaren bukaera, inoiz, beste era hontara kantatu zidan:

ia asetzen bada
iñon odolakin.

Horiez gainera, aski esagunak diren "Jaime III.a Espainian errege"-ren hiru bertso ere jasoak ditut, lehen beste iturri batetik ezagutzen nituen osatuagoen aldakuntza batzuk ere aurkitzen dira; baina esagunagoak izatez garrantzi gutiago duten usteaz uzten ditut gaurkoz.

Bestelako bertso sailtxo bat ere jaso nuen Ertzil zenagandik eta horien artean aipagarrienak Santa Ageda kantak. 1917an J. Olañeta berak antolatu zuen kantari talde batek erabili zituenak gainera. Horien berri San Roman ermitari buruz egin nuen lan batean ean nuen. Ikus, Boletin de la R.S.B. de los Amigos del País-en XXXI (1975), 585-589 orrialdeetan, "La ermita de San Román de Eibar y la devoción a Santa Agueda" deritzana.

Baina karlisten gerrateko gaira itzuliz bukatu dezadan. Bilketetatik ikus ditzagun itxuraz hain liberala den gure Eibar kuttuna ere ez dela libratzen garaiko esamesetatik. Eibarko Bittorio Fraile txikia ez dakigu nor zenik, baina bai nortasuna zuela, elizarentzako zergak hobetu zituenez, hamarrenak zortzirenetara bihurtuz (Eliza sostentzeko ematen zen premisa, hamarrenak ziren eta horiek zortzitik jartzeko agindua eman omen zuen, Ertzil-ek zionez):

Bittorio Fraile txikia
ta Murgitondo motza
zortzitik bata eskatzen
ez dirala lotsa.
Eurentzat edari onak
guretzat ur otza,
arria bezin gogorra
karlisten biotza.

Karlisten gerrateaz historia asko idatzi da gudu edo bataillak adierazi, baita ere garaiko politikoek foriuen alde edo foruen kontra, lege zaharreri eutsi nahirik edo horiek hautsi nahirik; errege absolutista konstituzionalak beren interesak hortaz jokatuz eta herria nahastuz, Sánchez Silva-ren eritzien aldeko eta aurkako talteak jarriaz eta abar. Baina, herriak berak, herri xeheak nola pentsatzen zuen eta zergatik jokatzen zuen jakiteko, garai hartako "bolanderak" (bertso paperak) eta gainerako ahozko literatura ditugu baliozkoenak. Bilketak egin dira, baina oraindik asko da biltzeko geldituzen zaiguna eta lan honetarako gure hizkuntza oso baliagarria zaigu. Adibidez, Auspoa Liburutegiak argitaratu zigun Aita Franzisko Apalategi jesulagunaren ***Euskal mutillak armetan (1961)*** *deritzamaren lehen tomoa eta lastimagarria deritzagu lan horren jarraipenik eza.*

Hiru artikuluetatik ikus dezakegunez, bilketa lanak beregan hartu nahi dituenak oraindik bada zereginik.

Juan SAN MARTIN,

En este tercer artículo con versos comentados de las guerras carlistas, aunque la mayoría nos lleguen fragmentados, se aportan interesantes detalles de ideas y conceptos populares de los defensores del liberalismo, con serias acusaciones contra los comportamientos violentos. Constituyen una fuente histórica muy valiosa en [illegible] favor de una conducta [illegible]vica correcta, si tuvieran [illegible] sobre aquellos lamentables [illegible] sus consecuencias.

Por una parte, las [illegible] proclamas que generaban [illegible]tían en verso vascongado [illegible] de los bandos y, por otra, [illegible]tura oral, de la que sólo [illegible] mucho para recoger pero [illegible] que sea, puedes encontrar [illegible]sima documentación [illegible] la historia propiamente dicha [illegible]retóricas ideológicas [illegible] Silva y sus opositores, [illegible]ristas principalmente [illegible]sión sobre los Fueros [illegible] ahondar en el pensamiento [illegible]mento popular que [illegible] armas y que siempre [illegible] la peor parte. Sirvan [illegible]tremo en el que nadie [illegible] la valía del euskara [illegible]gunas fuentes y dos [illegible] interpretar [illegible]. La [illegible]poa nos [illegible]ció allá en [illegible]mer tomo de las recopilaciones [illegible]vadas a cabo por [illegible] Francisco de Apalategi [illegible]zos de nuestro siglo. [illegible]dera lástima que no [illegible]nuidad, ya que todo [illegible] sobre el tema nos [illegible] muchísimos aspectos [illegible] contiendas fratricidas.

Entrega voluntaria ote?

Herri guztiek dute heuren egutegietan era bereziz marraz daitekeen datarik. Hau edo bestea dela maiztasun ezagun batez ospatzen dira egun hoiek. Hain zuzen ere, Frantzian Uztailaren 14.an Armistice izenekoa; Apirilaren 25.ean Italian Anniversario della Liberazione deritzana; Espainian Urriaren 12.an Dia de la Raza (Hispanidad)... Ene ustez, Herri hoien kondairetan hizki maiuskulaz daude idatzita egun hoiek.

Arabako historian Apirilaren 2.a dugu garrantzi haundiko eguna. Baina, benetan, ez dakit zernolako karakterez dagoen idatzita. Izan ere, orain arte ***Entrega Voluntaria*** *izeneko tituluaz ezagutua izan dena, aurrerantzean* ***Pacto de Arriaga*** *esango dugu. Hauxe da, behinik behin, Arabako Foru Aldundiak erabaki berri duena. Zergaitik aldaketa hau? Hainbeste urtetan entzun ahal izan den izen horrek ez al du gaurregun balorerik?*

Arabako Historian nik baino askozaz gehiago ikertu duen D. Odon Apraizek honela dio efemeride hau gogoratzean: ***"La voluntaria entrega de Alava a Castilla... ni fue voluntaria, ni fue entrega... ni fue Alava".*** *Baina zer gertatu zen 1332.ko Apirilaren 2.an?*

Arriagako Kofradia Arabako gobernamenduaren historian ezagutzen den lehen erakundea da: XIgn. mendeko zenbait lekukotasun aurkitu da Kofradiari buruz. Eta gehiagorik ez bada jaso arrazoi batengatik da: garaiko bilereetan ez zen agiririk izenpetzen, gertatutakoaren berri ahoz-aho ematen baitzen. 1.258.an agertzen ei da lehen aldiz idatzita Kofradiaren izena. Urte horretarako Gasteiz Gaztelako Erregeak hartuta zeukan eta hiri hau ez ezik baita Trebiño (1161) eta Agurain (1256) errege-hiri bihurtzen dira, Gaztelako babespean geroago eta indartsuagoak bihurtzen direlarik. Indar honek zerikusi haundirik izango du 1332.ko itunean.

1258.ko agiri horretan Kofradiako kideek Alfontso X.gnari Gasteiz eta Aguraingo hiriekin izandako istiluen berri ematen diote. Itxuraz, hiri hoiek jaube eta terrenurik lortzen zuten Kofradiaren lurralde barruan. Hau dela eta, itun bat sinatzen dute Alfontso erregearekin eta hamasei herrixka ematen diote honi, heuren jaube eta eskubide guztiekin. Bederatzi Gasteizek hartu zituen, "herrixka zaharrak" bezala ezagutuak, halegia; gainontzeko zazpiak Agurainek. Itun honen bidez, Kofradiak errege-hiri biei Arabako basoetatik egurra atera edo erosi ahal izateko eskubidea ematen zien eta baita hiri inguruetako erreken zenbait zatitan arraindu ahal izateko baimena ere. Alfontso Xgnak, bere aldetik, zera zhurtatzen zuen: aurrerantzean bi hiri hoietako biztanleek ez zuten Kofradiak eskainitako herrixketatik kanpo ezer erosi, irabazi ezta oinordetu ere egingo.

Baina alderdi bien jokaera nolakoa den garbi ikus daiteke itun horretan. Esan dezadan, eredu gisa, Arriaga Gasteizko muga barruan geratzen dela, sinadura horren ondoren. Eta Kofradiak Arriagako Zelaian, San Juan Elizan, egin ohi zituen bere batzarrak...

Maritxalar eta Manrikeren "Historia de los Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava" izeneko liburuan, honela irakur dezakegu: "No están muy bien averiguadas las causas que movieron a la Cofradía de Arriaga para pedir la incorporación a la Corona de Castilla en 1.332". Eta, egia esateko, historiegilerik gehienak ados daude aipatutako eritzi honekin.

Baina historiaren irakurketak nahiko argi ematen digula esango nuke nik. Duda izpirik ez, Alfontso Xgnak gobernamendu-era berezi bat sortzen du. Agintza-antolaketak bide berririk urratzen du eta Araban dituen hiru hirien bitartez oinarri trinkorik lortzen ari da Gaztelako erregea. Alfontsoren seme den Antso IV.gnak, erregetzaren ondorengoa ziurtatu nahian, Gasteizko Forua hobeagotu egiten du. Hiri honen eta Kofradiaren arteko harremanak ozpintzen doaz. XIIIgn mendeko azkenengo urteetan eta XIVgarrengo lehengoetan Arriagakoek beren indarra, unez-une, galtzen ari dela dakusate. 1331.arte beste berrogei eta bat herrixka igaroko dira Gasteizko kontseiluaren eskuetara. Kofradiak auzitara daraman erregehiria, baina erregearen laguna den Juan Martinez de Leyva epailariak Gasteiz hiriari ematen dio arrazoia, 1332.ko Otsailaren 8.an.

Ordua iritsi da. Kofradiak bere politika birplanteatu behar du. Ba daki daraman bidetik ezin dezakeela luzaroz iraun. Alperrik dabilela. Gaztelako erregeen kontra ezer gutxi atera dezake Kofradiak. Eta, ahal duen bezala, bere baza jokatu behar du, nahita nahi ez. Ez dut uste, beraz, harridura sortu behar zaigunik Kofradiaren jokaera zein eta nolakoa izan zen aztertzen dugunean. Kofredoen interesen defentsarako erreakzio bat, jokabide zuhur baten bidez, besterik ez da 1332.ko Apirilaren 2.an ematen dena. Kofradia Gaztelako erregearen esku jartzeari jokabide zuhurra dei badakioke. Batzuek, berriz, "Nosotros respetamos lo que hicieron nuestros antepasados de la Cofradía de Arriaga, porque obraron según su derecho, aunque lo reputamos como un completo error; error que cometió Guipúzcoa más de un siglo antes, Vizcaya medio siglo después y Navarra también algo más tarde".

Gaztelako Alfontso XIgnak eta Maria bere andreak, alde batetik, eta Lope de Mendoza, Beltrán Yáñez de Gebara, Juan Furtado de Mendoza, Kalahorrako arkediano zen Fernando Ruiz..., eta Arabako aitonen seme, zaldun, apaiz... eta kofredo guztiek bestetik, Arriagako Ituna sinatzen dute: ***"nos otorgaron la tierra de Alava que hobiesemos ende el señorío... e renunciaron e se partieron de nunca haber Cofradía ni ayuntamiento en el campo de Arriaga, ni en otro lugar ninguno a voz de Cofradía, ni que se llamen cofrades e renunciaron fuero, e uso e costumbre que habían en esta razón para agora e para siempre jamás, e sobre esto ficieronnos sus peticiones...".***

Ondo derizkiot hasieran aipatu dudan izen aldaketari. Ene ustez, Arriagara biltzen ziren kofredoak ***behartuta*** *aurkitu baitziren ezagun dugun erabakia hartzera.*

José Mari
VELEZ DE MENDIZABAL

Han transcurrido 650 años desde la famosa Voluntaria Entrega y ahora resulta que de eso nada. Por lo menos es lo que se deduce de la decisión de la Diputación Foral de Alava sobre que los actos a celebrar con motivo de esta efemérides no serán por "la voluntaria", sino por lo que pasa a denominarse Pacto de Arriaga. Esto, claro, de una manera llamémosle oficial. Porque de que no existía unanimidad en los historiadores era algo conocido desde —yo diría— el mismo día de la firma del Pacto.

Don Odón Apraiz acostumbra a decir al hablar del tema: "La voluntaria entrega de Alava... ni fue voluntaria, ni fue entrega... ni fue Alava". Y Don Odón sabe un rato largo sobre historia de esta provincia. También los historiadores Marichalar y Manrique en su obra dedicada a los Fueros y Leyes vascos, comentan el desconocimiento existente sobre las causas que motivaron que la Cofradía de Arriaga solicitara la incorporación a la Corona de Castilla y la firma del acuerdo el 2 de Abril de 1332. Y también existe quien, yendo más lejos, considera esta decisión como un error total. Son distintas opiniones.

Ahora bien, parece que de la lectura detenida de los [illegible] de la época pueda [illegible] efectivamente, los [illegible]tidad política más [illegible] conoce en Alava se [illegible] a tomar la decisión [illegible] Corona de Castilla [illegible] estuvo motivado por [illegible] deseo de evitar [illegible] en las relaciones [illegible] reales alavesas. [illegible] Salvatierra—con la [illegible]tez provocada por [illegible] de favor de los [illegible] sus villas, en detrimento [illegible] chos de los que [illegible]

Es en 1258 cuando [illegible] X y los de Arriaga [illegible] acuerdo por el que [illegible] las villas se están [illegible] temente con vasallos [illegible] de la Cofradía [illegible] rey 16 aldeas con [illegible] sallos, que los repartían [illegible] las 9 llamadas [illegible] siete para Salvatierra [illegible] partida, Alfonso X [illegible] podrán los habitantes [illegible] ni ganar ni heredar [illegible] de Alava excepto [illegible] en el acuerdo. Pero [illegible] ple, y las tensiones [illegible] partes van en aumento [illegible] querido ver en la [illegible] a las villas las [illegible] lanza para la conquista [illegible] libre. Y creo no [illegible]

Cuando en Fuenterrabía [illegible] parcial arbitraje de [illegible] castellano Juan Martínez [illegible] en el pleito sentenciando [illegible] día, hace que [illegible] aldeas pasen a depender [illegible] de Vitoria, la [illegible] herida de gravedad [illegible] su futuro cada [illegible] juega su baza. [illegible] dose a él. Y el rey [illegible] oferta de los [illegible] taba esperando. [illegible] dispensable. [illegible] Alava de la época [illegible] mento uno de sus [illegible] mentales: el de [illegible] Landázuri: "Hasta [illegible] bilísima Provincia [illegible] de seiscientos [illegible] gobierno de [illegible] otro Jefe y Señor [illegible] misma elegía [illegible] día de Arriaga [illegible] pontánea voluntad [illegible]

ANALISIS E INTERPRETACION DE BALANCES

Curso del Instituto de la Pequeña y Mediana Empresa Industrial (I.M.P.I.)

Organización: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa

Celebración: En San Sebastián, a partir del **1 de abril, los jueves,** de 11h. a 14h.

El I.M.P.I. entregará a los asistentes —el curso se orienta a empresarios y directivos de la pequeña y mediana empresa industrial— el correspondiente diploma acreditativo de su participación.

Información: En la propia Cámara, Aguirre Miramón, 2 —San Sebastián— Tfno. 27 21 00.